


Intxaurrondo

Auzo elkarteak lanean

Hilaren 10etik 14ra bitartean, Auzo Elkarteek Astea egingo da Hego Intxaurrondoko kultur etxean. Auzoko elkarte batzuek hainbat ekitaldi antolatu dituzte auzotarrekin harremana estutzeko.

Intxaurrondo Berri Emakumeen Elkarteak, Intxaurdik, Intxaurmarrek eta Bustin Txikik antolatu dute Elkarteek Astea. Ekitaldi guztiak Intxaurrondo Berri kultur etxean egingo dira eta parte hartuko duten elkarteek helburua beren burua ezagutaraztea da. Intxaurmar Gazte Elkarte



Erakusketak eta mahai inguruak egingo dira Intxaurrondo Berri kultur etxean.



Auzo Elkarteek Astearen jende askok parte hartzea nahi dute antolatzaileek.

kide Iñigo Garcia Blancok esan digunez, "auzoa izugarri handitu da azken urteotan, eta auzotar askok eta askok ez dakite zer nolako taldeak ari diren lanean auzoaren alde". Intxaurrondo Berri Emakumeen Elkarteak lagunek adierazi digutenez, "bestalde, "egun 60 bat bazkide ditugu eta ikastaroetara emakume asko etortzen zaizkigu. Gainerako ekitaldietan, ordea, parte hartzea oso murriztua da".

Erakusketa eta mahai ingurua

Hilaren 10etik 14ra bitartean, Hego Intxaurrondori buruzko erakusketa elkarreragilea bisitatu ahal izango da.

Erakusketa hau 18.00etatik 20.00etara zabalik egongo da. Bide batez, bisitariek Hego Intxaurrondori buruzko argazki sorta eta auzoko elkarteek mapa ikusiko dute. Bestalde, hilaren 10ean, astelehena, mahai ingurua egingo da 19.00etan. Bertan EHuko irakasle Eli Arrieta, Eva Salaberria udal teknikaria eta auzo elkarteetako kideren bat ariko dira. Azkenik, hilaren 13an, osteguna, zenbait hirigintza proiektu mahaigaineratuko dira. Alde batetik, Siustegi parkearen egoera aztertuko da. Auzotarrek Siustegin garbiketa lan sakonagoak egitea eta haurrentzako jolas gunea berrieza eskatu dute. Bestalde,

Auzoko lau elkarteek antolatu dute astea

Mons pasealekuan hainbat urtez egondako kirol gunea lekuz aldatuko dute. Ildo honetatik, kirol gunea berria zabalagoa izan dadin eta aldagelak izan ditzan eskatu dute auzotarrek. Azkenik, Euskotrenek Intxaurrondon eraiki behar dituen geltokien berri emango da hilaren 13ko hitzaldi horretan.

Garagardoaren txanda

Hilaren 6an hasi zen Garagardo Astea. Urtero bezala, marka ezagunen garagardoak idastatzeko aukera izango da Justo Elizaren parkean jarritako karpian. Garagardo Astea hilaren 13ean amaituko da.

Bideo lanak ikusgai Larrotxenen

Hilaren 10etik 14ra bitartean Bideo emanaldiak egingo dira Larrotxenen. Guztira, 26 lan pantallaratuko dira, hauetariko sei euskaraz. Bestalde, 22 urteko David Gonzalezek zuzendutako "Suelos" film luzea ere proiektatuko da. 73 minutuko lan hau Larrotxenen ekoiztitzeko lehen film luzea da.

Argitarapen honen adizikioko liguiztaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social